

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2010eko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du; txostena Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Foru Erakunde Autonomoen kontuek ez ezik (Administrazio Sektore Publikoa), Foru Enpresen Erakunde Publikoen eta Foru Elkarte Merkataritzakoen kontuek (Enpresa Sektore Publikoa) osatzen dute. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz kideetatik hiruk baterako boto partikularra egin duten eta beste bik desadostasunezko boto partikularra.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Foru Sektore Publikoaren finantza egoera aztertzen du.

Administrazio Sektore Publikoa

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2010eko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan Aldundiari dagokionez jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita. Foru Erakunde Autonomoetan ez da salbuespenik jaso.

Sarrera fiskalei dagokienez jakinarazi da 22 zergapekori 53,7 milioi euro egiten dituzten zerga zorrak ordaintzeko gerorapenak eman zaizkiela, 2010eko ekitaldirako legez ezarritakoa baino interes tipo txikiagoarekin; horiek emateko, foru arautegiak aurreikusten dituen baldintza bereziak baliatu dira, baina era berean azpimarratu da berandutza interesak guztientzat bat bera izan behar dutela dioen jurisprudentzia dagoela.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan honako ez-betetze hauek azaleratu dira: dagozkion kontratazio espedienteak izapidetu gabe zerbitzuak zuzenean kontratatu dira eta kontratuak zatikatu dira edota prozedura ireki bitartez izapidetu behar ziratekeen espedienteetan publizitatearekin eta publizitaterik gabe prozedura negoziatua eta kontratu txikia erabili da.

Bestalde, Diru-laguntzak emateari dagokionez, BFAk zuzenean eta deialdi publikoa egiteko ezintasuna egiaztatu gabe 3,6 milioi euroren 6 diru-laguntza eman ditu. Gainera, atal honetan bertan, Diputatuen Kontseiluak kirol jarduerarekin loturiko bi erakunderi 1,9 eta 0,8 milioi euroren zuzeneko diru-laguntzak ematea onartu du; horrek nabarmen desitxuratzen du Batzar Nagusiek erakunde horietarako onartutako diru-izendapen nominatiboak, 0,1 eta 1,6 milioi eurorenak.

BFaren Kontuari dagokionez, HKEEK uste du egoki erakutsi duela 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa ez ezik, baita ekitaldi itxierako ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala ere, hainbat ez-betetze salbuetsita; izan ere, eragiketarako erregistratzeko baliatu dituen irizpideak erakunde fiskalizatzaileak onartzen ez dituenak baitira eta horren ondorioz, Metatutako Emaizta 87,6 milioi euro murriztu da eta urteanitzeko hainbat gastu ez ditu barne hartu. Azpimarratzekoa da Europako Batzordeak Europar Batasuneko Auzitegiari aurkeztutako auzi eskeari dagokionez sortutako zalantza egoera, 3/1996 eta 7/1996 Foru Arauetan ezarritako kenkariak eta zerga hobariak berreskuratzeko beharrezko neurriak ez hartu izanari buruzkoa. Foru Erakunde Autonomoen Kontuek ez dute salbuespenik. Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu atal batean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Gomendio horiek aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalen kudeaketari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileriarri dagozkio.

BFaren finantza egoerari dagokionez Epaitegiak ondorioztatu du nahiz 2010eko ekitaldian sarrera arruntek gora egin duten eta gastuak ez diren aurreko ekitaldietako erritmo berean hazi, eta ondorioz, emaitza arrunta gehitu den, emaitza hau ez dela behar hainbatekoa kapitalezko eragiketen exekuzio garbia finantzatzeko eta honenbestez, zorpetzea baliatu behar izan duela, azken bi ekitaldietan urteko % 30 inguru handitu dena.

Enpresa Sektore Publikoa

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2010eko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Gainera, Epaitegiak azpimarratu du langileriari dagokionez eta lau sozietate publikoren kasuan, ezin egiaztatu izan dela berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana berriaz gaitutako enpresen bidez gauzatutako langile hautaketan; izan ere, puntuen arabera hurrenkeratutako izangaien azken zerrenda proposatu baizik ez baitute egiten. 2010eko ekitaldian prozedura hau baliatuta egindako kontratazioek 13 langile eragiten dituzte. Ondasun eta zerbitzuen kontratazioan, unean uneko ez-betetzeak azaleratu dira bi sozietate publikotan.

Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta sozietateen urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du egoki erakusten dutela 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen isla leiala eta ekitaldi itxierako finantza egoera; salbuespen bakarra dago Azpiegiturak, SAREN kontuetan, izan ere Sozietatearen txostenak ez du ondoko zalantzazko egoera hauez informaziorik ematen: eraikuntza eta higiezinaren sektorearen krisiaren ondorioz 138,2 milioi euroan balioztatutako izakinez; 2006an 15 milioi euroren zenbatekoarekin erositako ibilgetuko inbertsioez eta erosketa une berean saltzaileari hileko euro baten prezioan alokatutakoez; eta taldeko eta elkartutako enpresei emandako kreditu eta abalez, 2010eko ekitaldi itxieran, hurrenez hurren, 7,3 eta 4,1 milioi euroren saldoa dutenak. Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu irizpen eta gomendioen atalean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Ez-betetze hauek nagusiki aurrekontuari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari eta langileria gastuei dagozkie.

Finantza gaietan, HKEEk jakinarazi du Aldundiak 62,6 milioi euro eman dituela 2010eko ekitaldian Enpresa Sektore Publikoarentzat: 53,4 milioi euro kapitala handiagotuta, eta 9,2 milioi euro sozietate horien galerak berdintzeko. Berebat, sozietate hauek 14,8 milioi euroren diru-laguntzak eman dizkie. Ondoren, 2010eko ekitaldian zorpetzea % 49 gehitu dela aipatzen du eta hortik kopururik handiena Interbiak, SARI dagokiola, azpiegiturak egin ahal izateko. Epe laburreko finantzaketari dagokionez azpimarratu du, salbuespenen bat tarte, finantza egoerak epe laburrean aktiboak pasiboari aurre egiteko ezintasuna erakusten duela. Amaitzeko, ekitaldiaren emaitzari

erreparatuta, adierazi du Enpresa Sektore Publikoaren 2010eko ekitaldiaren galerak 42,1 milioi eurorenak izan direla eta Sektore horren ustiaketa sarreretatik % 69 lotutako enpresei zerbitzuak emateari dagozkiola.